



2019ko irailaren 10eko manifestua

manifestua

1. Jainkoak gu bakean bizitzea nahi du. Lor daitekeen gauza da bakea, baita gure herriarena ere. Oraintxe bertan nahi dugu bakea. Ez dugu nahi inork bake hori galarazterik, ez atzeratzerik. Guk geure gain hartzen dugu, bakearen alde lan egiteko erabakia, egian eta zuzentasunean egin ere, geure erantzukizunaren arabera.
- Jauna, zuzengabekeria nagusi den lekuan, nik bakea jar dezadala!
2. Maite dugu bizia, Jainkoaren dohain sakratua delako eta gizakiaren lehen eskubidea, edonor izanik ere gizaki hori, eta nonahi egonik ere. Ez dugu nahi inork inor hiltzerik, ez torturazterik, ez inori kalte egiterik. Guk geure gain hartzen dugu, pertsona guztien biziaren alde jokatzeko erabakia.
- Jauna, heriotza nagusi den lekuan, nik bizia jar dezadala!
3. Sinesturik gaude, pertsonak eta herriak gai direla, beren istiluen konponbidea bake-bideetatik aurkitzeko. Ez dugu nahi gogorkeriaz ezarritako irtenbiderik, gure herriak askatasunez nahi duenaren kontra. Guk geure gain hartzen dugu, askatasunean oinarritutako jokaera eta bide demokratikoak indartzeko erabakia.
- Jauna, gogorkeria nagusi den lekuan, nik askatasuna jar dezadala!
4. Onartzen ditugu, geure herria eraikitzeko dauden legezko hautabide guztiak. Ez dugu nahi inork beretzat hartzerik, herriaren ordezkari bakarra izateko eskubidea. Guk geure gain hartzen dugu, egiazkoa eta denentzat izango den bakea bilatzeko erabakia.
- Jauna, banaketa nagusi den lekuan, nik elkartasuna jar dezadala!
5. Sinesturik gaude, egia baduela indar bakea lortzeko. Ez dugu onartzen, gezurra erabiltzerik estrategiarako tresna gisa, ezta egia nork bere interes politiko eta sozialen zerbitzuan nolana ere erabiltzerik ere. Guk egia indar askatzailearen aldeko apustua egiten dugu.
- Jauna, gezurra nagusi den lekuan, nik egia jar dezadala!
6. Sinesturik gaude, elkarrizketak balio duela iraunkorra izango den bakea lortzeko bide gisa. Ez dugu onartzen inolako asmorik, elkarrizketa estrategia kalkulatuaren zerbitzuan erabili nahi duenik. Guk geure gain hartzen dugu, elkarrenganako errespetutik eta elkarri entzutetik sortzen den elkarrizketa indartzeko erabakia.
- Jauna, elkar konpondu ezina nagusi den lekua, nik elkarrizketa jar dezadala!
7. Aitortzen dugu, barkamenak baduela indar soziala gure etorkizuna eraikitzeko. Ez dugu nahi, mendekuaren eta gorrotoaren kateak geure lehenaldia lotu gaitzan betiko. Guk geure gain hartzen dugu, denon barkamen-erperientzia bideratzeko erabakia.
- Jauna, gorrotoa nagusi den lekuan, nik barkamena jar dezadala!
8. Sinesten dugu bakean, gizakion lortzen eta Jainkoaren dohain den bakean. Guk geure gain hartzen dugu, aspergabe otoitz egiteko erabakia, geure bihozberritze pertsonala eta geure herriaren bakea iristeko. Otoitz horrek lagunduko digu, geure buruak askatzen, burugabeko gorroto eta dogmakeria gogor guztiak, gezurrezko erabilera oker eta elkar eraman-ezin gaizto guztiak.
- Jauna, emaguzu bihotz berria, emaguzu zeure BAKEA!